

LEHENENGO ORDENANTZA FISKALA

KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKAPENARI BURUZKO ORDENANTZA **FISKAL OROKORRA**

I. IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. Artikulua.- Udal honek Ordenantza Orokor honetara makurtuko ditu bere ekintzak, zergen gaineko kudeaketa, bilketa eta ikuskapena egitekoan.

2. Artikulua.- Ordenantza hau udal barruti osoan aplikatuko da.

3. Artikulua.- Zergen kudeaketa, bilketa eta ikuskapena Udal Administrazioak egingo du, baina hala ere, Foru-Aldundiari ordezkartzen eman lezaizkiokeenaren kalterik gabe, edo Komunitate Autonomoari eman lezaizkiokeenaren kalterik gabe, edo Administrazio Publikoekin, orokorrean, elkarlankidetzarako egon daitezkeen eredu desberdinen kalterik gabe.

Halaber, Udal Administrazioak erabaki lezake, adierazitako ondorio horietarako, Udala integra daitekeen elkartze-erakundeek eskainitako zerbitzuak erabiltzea.

II. ZERGEN KUDEAKETA

4. Artikulua.- Zergen gestioa, martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren III. Tituluan ezarritakoaren arabera, garatuko da.

5. Artikulua.- Hobarien aplikazioa: Baldin eta, toki-zergak arautzen dituen Zerga Ordenantzetan adierazitako hobarietatik, norbaitek bat baino gehiago aplikatzeko eskatuko balu, horiek ezingo litzaizkioke aldi berean aplikatu, eta bakarrik, eskatzailearentzat onuragarriena litzatekeen hobaria aplikatuko litzateke.

6. artikulua- Zergaren bilketaren kudeaketako eragingarritasun eta ekonomia mailako irizpideen eraginez, salbuetsita geldituko dira 6,01 euroak gainditzen ez duten kuota likidoa duten likidazioak. Salbuespen hori ez zaie aplikatuko 10. eta 15. zerga-ordenantzetan, hurrenez hurren, araututa dauden agiri administratiboak ematearen tasari dagozkion likidazioei, ez eta euskararen irakaskuntza-zerbitzuak ematearen tasari, etxex etxeko eta hirugarren adinekoen asistentzia, kultura eta kirol mailako zerbitzuak ematearen tasari dagozkion likidazioei ere.

III **DIRU-BILKETA.**

I. KAPITULUA. XEDAPEN NAGUSIAK.

7. artikulua. Diru-bilketaren kudeaketa.

1. Diru-bilketaren kudeaketa zorrak eta zerga-zehapenak eta Udalari ordaindu beharrekoak asetzeko izaera publikoko gainerako baliabideak kobratzea helburu duen funtzio administratiboa egikaritzean datza.

2. Helburu horretarako, izaera publikoko kredituei zor esango zaie eta Udal Ogasunak zor baten zati bat edo zor osoa ordaintzea eskatuko dien pertsonak edo erakundeak ordaintzera behartuta egongo dira.

3. Diru-bilketa honela gauzatu ahal izango da:

- a) Borondatezko epean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitako epeetan ordainduta edo bete beharrekoa beteta.
- b) Epealdi exekutiboan, ordaintzeko beharra berez ordainduta edo beteta edo, hori hala egiten ez bada, premiamenduko administrazio-prozeduraren bidez.

8. artikulua. Erregimen orokorra.

Zerga-zorren eta –zehapenen eta izaera publikoko gainerako baliabideen Diru-bilketaren Kudeaketa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauak ezarritakoaren arabera arautuko da, Tokiko Ogasunen Foru Arauan eta Udal Ordenantza honetan aurreikusitako berezitasunekin. Bertan aurreikusitako guztiari, ordezkari gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzerakoan emandako lege-mailako xedapenak aplikatuko dira eta, zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Araudia, 215/2005 Foru Dekretuaren bidez abenduaren 27an onetsitakoa.

9. artikulua. Diru-bilketaren Kudeaketako Organoak.

1.- Zerga-zorren eta –zehapenen eta izaera publikoko gainerako baliabideen Diru-bilketaren Kudeaketa Basauriko udalak berak gauzatuko du Diru-bilketa Sekzioaren bidez; dena den, diru-bilketa exekutiboaren arloan laguntza- eta aholkularitza-lan batzuk horretarako kontratatutako kanpoko enpresa batzuek egin ditzakete.

2.- Udal Diruzaintzari atxikita dagoen Diru-bilketa Sekzioa Basauriko Udalaren Arlo Ekonomikoaren barnean dago eta modu autonomoan kudeatzen ditu bere eskumenen xede diren gaiak eta bere barneko antolakuntza.

II. KAPITULUA. DIRU-BILKETAREN KUDEAKETA. ARAU KOMUNAK.

10. artikulua. Ordainketa-epeak.

1. Zorren diru-bilketa borondatezko epealdian eta epealdi exekutiboan egin ahal izango da.

2. Ondorengo hauek izango dira borondatezko epealdian zorrak ordaintzeko epeak:

- a) Auto-likidazio baten ondoriozkoak badira, zerga bakoitza arautzen duen Udal Ordenantzak ezartzen dituenak.
- b) Administrazioak gauzatutako likidazioaren ondoriozkoak badira, borondatezko epealdia hilabetekoa izango da jakinarazpenaren datatik aurrera.

Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoen eraginez ordaintzera behartuta dagoenari edo haren ordezkariari jakinaraztea ezinezkoa denean, haren helbide fiskalean edo interesdunak adierazitakoan bi bider saiatu ondoren, zerga-obligaziodunari edo haren ordezkariari dei egingo zaio Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren iragarkien bidez jakinarazpena agerraldi bidez izan dezan. Edonola ere, agerraldia 15 eguneko epean egin beharko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta agertu izan ez balitz,

jakinarazpena egintzat hartuko litzateke agerraldia egiteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

- c) Aldizkako kobrantzako eta jakinarazpen kolektiboko likidazioak direnean, borondatezko epealdian ordaintzeko denbora-tartea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den eta Udalaren iragarki-oholean ezarriko den kobrantza-iragarkian zehaztutakoa izango da.

3. Borondatezko epealdiko ordainketarako ezarritako epea guztia ordaindu gabe epemugak zehazten du dagoen zorraren epealdi exekutiboa automatikoki noiz hasten den.

4. Epealdi exekutiboa hasteak zehaztuko du berandutze-interesak eta epealdi exekutiboaren gainordaina eskatzea, baita, gertatuz gero, premiamendu-prozeduraren kostuak ere.

5. Berandutze-interesa hori eska daitekeen epean indarrean den diruaren legezko interesa izango da ehuneko 25 handituta, ezarritakoa beste kopuru bat ez bada.

Zerga-izaera ez duten zergei ezingo zaie diruaren beste legezko interes-mota bat aplikatu.

6. Epealdi exekutiboa hasteak zehaztuko du berandutze-interesen sortzapena, premiamendu-probidentzia ematen denetik probidentzia horri buruzko jakinarazpenaren datatik hilabetera arteko epean izan ezik, aipatu denbora-tartean sartutako diru-kopuruak direla eta.

7. Gainordain exekutiboa ehuneko 5ekoa izango da, modu automatikoan sortuko da zerga-zorretarako eta zerga arloko zorrak ez direnetarako eta epealdi exekutiboa hastean eskatu ahal izango da.

8. Premiamendu-probidentziari buruzko jakinarazpena eginda eta haren jakinarazpenetik epe bateko denbora-tartea igarota zerga-zorra edo zerga arloko zorra ordaintzeko, ehuneko 20ko premiamendu-gainordain bat eskatuko da.

11. artikulua. Epeen zenbaketa.

1. Besterik adierazten ez bada, epeak egunen arabera zehazten direnean, lanegunak direla ulertu behar da eta larunbatak, igandeak eta jaiegun gisa izendatutakoak zenbaketatik kanpo geldituko dira.

Epeak egun naturalen arabera zehazten direnean, idatziz jaso beharko da hori dagozkien jakinarazpenetan.

2. Egunetan adierazitako epeak dagokion ekintzaren jakinarazpena edo argitalpena egiten den egunaren biharamunetik edo isiltasun administrazioaren araberrako onespina edo onespina ezaren biharamunetik aurrera kontatuko dira.

3. Epea hilabeteka edo urteka finkatzen bada, horiek dagokion ekintzaren jakinarazpena edo argitalpena egiten den egunaren biharamunetik edo isiltasun administrazioaren araberrako onespina edo onespina ezaren biharamunetik aurrera kontatuko dira. Epemuga-hilabetearen ez balego zenbaketa hasten den egunaren parekorik, epea hilabetearen azken egunean iraungiko dela ulertuko da.

4. Epearen azken eguna baliogabea bada, luzatutzat joko da hurrengo lanegunera arte.

5. Egun bat laneguna bada interesduna bizi den udalerrian edo Komunitate Autonomoan eta baliogabea, berriz, udalerrri honetan, edo alderantziz, baliogabe gisa hartuko da. Bigarren kasuan, interesdunak Administrazioari hori jakinarazten dioneko

hurrengo lanegunera aldatuko da epemugaren data, behin egiaztapen egokia egin ostean.

12. artikulua. Helbide fiskala.

1. Helbide fiskala ordaintzera behartuta dagoenaren kokapen-lekua da Udal Ogasunarekin dituen harremanetarako eta 2/2005 Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 47. artikuluan araututa dago.

2. Diru-bilketarako oro har, eta Zergen gaineko Foru Arau Orokorrak (ZFAO) araututakoaren arabera, helbide fiskala ondorengo hau izango da:

Pertsona fisikoentzat, ohiko egoitza.

Pertsona juridikoentzat, sozietatearen helbidea.

3. Ordaintzera behartuta dagoenak beste helbide bat eman ahal izango du, berea edo bere ordezkariarena, administrazioaren jakinarazpenak bertan jasotze aldera.

4. Edonola ere, ordaintzera behartuta daudenak behartuta daude haien helbidean izandako aldaketak zehaztera eta Udal Ogasunetik igorritako komunikazioetan izan litezkeen okerrak adieraztera, baina egoitza-aldaketak ez du eraginik izan behar Udal Ogasunean aipatu adierazpena aurkeztu arte.

Egoitza-aldaketaren adierazpenak ez du ordezkatzeko helbide fiskalaren adierazpen zehatza beste administrazio-eragin batzuetarako, esaterako, biztanleen eroldarako.

5. Udal Ogasunak jakiten badu ordaintzera behartuta dagoenaren helbidea ez dela bere datu-baseetan agertzen den bera eta ez badu horren gaineko jakinarazpenik jaso, helbide fiskala zuzendu ahal izango du dagokion egiaztapena egin ondoren, ordaintzera behartutako bakoitzari lotutako kudeaketa-elementu gisa barneratuko du eta diru-bilketa kudeaketatik eratorritako jakinarazpen guztiak zein helbidera bidali behar diren zehaztu beharko du.

6. Balio osoa izango du, oro har, ordaintzera behartuta dagoenaren jardueraren helbidean edo zerga izaerako edo izaera publikoko beste baliabide batzuen gaineko agiri baten azken bidalketan egindako jakinarazpenak.

13. artikulua. Diru-bilketa arloko jakinarazpenak.

1. Zergak ordaintzera behartuta dagoenari egindako jakinarazpenen erregimena administrazioko arau orokorretan aurreikusitakoa izango da, ZFAOn eta Ordenantza honetan ezarritako berezitasunekin.

2. Jakinarazpenak egiteko tokia:

- a) Interesdunaren eskariz abiatutako prozeduretan, jakinarazpena zerga aldetik behartuta dagoenak edo bere ordezkariak horretarako zehaztutako tokian gauzatuko da eta hori ezinezkoa balitz, baten edo bestearen helbide fiskalean.
- b) Ofizioz hasitako prozeduretan, jakinarazpena zerga aldetik behartuta dagoenaren edo bere ordezkariaren helbide fiskalean egin ahal izango da, baita lantokian, jarduera ekonomikoa gauzatzen duen beste edozein tokitan edo interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazitako ekintzaren berri jaso izana frogatzeko aukera ematen duen beste edozein lekutan ere.

3. Jakinarazpenak jasotzeko legitimatuta dauden pertsonak: jakinarazpena zerga aldetik behartuta dagoenak edo bere ordezkariak horretarako zehaztutako tokian edo

nahiz baten, nahiz bestearen helbide fiskalean egiten denean, entregaren unean bertan ez baleude, leku edo helbide horretan dagoen eta bera nor den erakuts dezakeen beste edozein pertsonak hartu ahal izango du jakinarazpena, baita ordaintzera behartuta dagoen pertsonak edo bere ordezkariak jakinarazpenak jasotzeko zehaztutako tokiko edo etxeko bizilagunen komunitateko langileek edo jabeek ere.

Interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazpenari uko egiten badio ere, jakinarazpena egintzat joko da lege mailako ondorioetarako.

4. Agerraldi bidezko jakinarazpena:

- a) Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla medio zergak ordaintzera behartuta dagoenari edo haren ordezkariari jakinarazpena helaraztea ezinezkoa denean, gutxienez bitan helbide fiskalera edo interesdunak zehazturiko beste lekuren batean jakinarazpena igortzen saiatu ostean, hartzailea aipatu helbidera eta tokian ezezagun gisa agertzen denean saiakera bakarra egitea nahikoa izanik, behartuta dagoenari edo bere ordezkariari deituko zaio agerraldi bidez jakinarazpena jaso dezaten argitaratu behar diren iragarkien bidez, behin bakarrik interesdun bakoitzarentzat Probintziako Aldizkari Ofizialean, hilabete bakoitzaren 5. eta 20. egunean edo, egokia bada, hurrengo lanegunean. Dena dela, bigarren jakinarazpen saiakerak ere porrot egiten badu, jakinarazpena – ordainketa-gutuna bertan utzi ahal izango da hartu izanaren oharrik gabe behartutako pertsonak jakin dezan.
- b) Argitalpenean falta diren jakinarazpenen zerrenda, ordaintzera behartuta dagoena edo bere ordezkaria, jakinarazpenaren arrazoiak den kontzeptua edo prozedura, haien tramitazioaren erantzulea den organoa eta agerraldirako lekua eta epea. Elementu komunak dituzten ekintzen argitalpenen kasuan, batera argitaratuko dira bat datozen aldeak, ekintza bakoitzaren banako aldeak soilik zehaztuta.
- c) Aurretik zehaztutakoaren arabera gauzatutako ekintzek jasota gelditu beharko dute espedientean, baita jakinarazpenerako zehaztutako helbidean entrega egitea eragotzi duen edozein egoerak ere.
- d) Agerraldia hamabost egun naturaleko epean gauzatu beharko da. Epea igarota agertu ez balitz, jakinarazpena gauzatutzat joko litzateke lege aldetik izan ditzakeen ondorio guztietarako aipatu epearen mugaren biharamunetik.

5. Jakinarazpena gauzatzea:

- a) Jakinarazpenaren entrega materiala Correos Posta Zerbitzuaren, Udal jakinarazle baten edo Udalak jakinarazpenen banaketa-zerbitzua gauzatzeko kontratatu duen enpresako langileen bidez egin ahal izango da.
- b) Correosek, jakinarazleak edo enpresa jakinarazleak bidali behar duen hartu izanaren adierazpenean ondorengo guztiak agertu beharko du: egindako jakinarazpenetan, data, identifikazioa eta hartzailearen sinadura eta, jakinarazpenaren berezko hartzailea ez bada, jakinarazpena hartu duen pertsonak ordaintzera behartuta dagoenarekin duen harremana agertuko dira; onartu ez diren edo gauzatu ez diren jakinarazpenetan, berriz, jakinarazpena gauzatzeko saiakeraren data eta ordua eta jakinarazpen-saiakeraren arrazoiak.

6. Gauzatu ez diren derrigorrezko jakinarazpenak: Erroldan modu desegokian sartu den alta bat antzematen denean eta horren gaineko jakinarazpena ordaintzera behartutakoari zuzenean bidali behar izango zitzaiokeenean, zor hori epealdi

exekutiboan baldin badago, Udal diruzainak premiamendu-probidentzia ezeztatuko du eta ez zaizkio gainordaina eta interesak eta, kasuan kasu, kostuak eskatuko; aurretik, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzaren Sekzioak eginbide bat igorriko du dagokion likidazioaren jakinarazpen falta eta Diru-bilketa Sekzioak egiaztagiri gisa artxibatuko duela adierazita.

III. KAPITULUA. ZORRAREN IRAUNGIPENA.

14. artikulua. Zorraren iraungipena.

Zorrek ordainketa, indargabetze, konpentsazio, kaudimen-gabeziagatiko behin-behineko baja eta legezko xedapenetan aurreikusitako gainerako bideen bidez iraungi ahal izango dira.

I. ATALA. ORDAINKETA.

15. artikulua. Legitimazioa, lekua eta ordainketa-modua.

1. Ordainketarako legitimazioa: Ordaintzera behartutako edozein pertsonak eta zorra iraungitzeko ahalmena duten beste pertsona batzuek gauzatu ahal izango du. Alabaina, zor bat ordaindu duen beste pertsona horrek ezingo dio Administrazioari eskatu diru-sarrera itzultzerik, okerreko diru-sarrera bat ez bada, jakina, eta ezingo ditu, halaber, ordaintzera behartutako pertsonaren beste eskubide batzuk egikaritu, zuzenbide pribatuaren arabera bidezkoak diren ekintza errepikatuak gorabehera.

2. Kobrantzarako eskumena: zorren ordainketa Ordenantza honetako 18. artikuluan zehaztutako diru-bilketa arloko lankidetzak gauzatzeko baimendutako Gordailu-entitateetan gauzatu ahal izango da; ordainketa Udal Diru-bilketaren Kutxan egitea salbuespeneko egoera batzuetan onartuko da soilik.

Ordainketak jasotzeko eskumenik ez duten organoei, erakundeei edo pertsonen egindako ordainketek ez dute zorduna salbuetsita utziko ordaintzeko betebeharretik eta behar ez den hartzaileak maila askotako erantzukizunak izango ditu.

3. Ordainketa-modua: Zorraren ordainketa esku-dirutan egingo da. Administrazioak, salbuespen gisa, zenbait kasutan zorra espezietan ordaintzea onartuko du borondatezko epealdian edo epealdi exekutiboan, edozein ondasun edo eskubide emanda, Udal Diruzaintzak zehazturiko baldintzei eta betekizunei jarraiki.

Zor bat esku-dirutan ordaindutzat joko da zenbatekoa Udal Diru-bilketa Kutxan edo diru hori onartzeko eskumena duten Erakunde Laguntzaile baimenduetan sartu denean.

Ordainketak dagokion eragina izan dezan, zor osoa bete beharko du, harik eta zatika ordaintzea utzi ez bazaio. Zor osoa ez pagatzekotan, aipatu zorrari modu partzialean aplikatuko zaio egindako ordainketa.

Borondatezko epealdian ordaindu ez diren zorrek epealdi exekutiboan ordaintzeko eskatuko da eta, kasuan-kasuan, epez kanpo pagatutako zenbatekoak kontuko ordainketa gisa zenbatuko dira.

16. artikulua. Ordainketarako epeak.

1. Zerga-zorrek ordaintzeko epeak Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluan zehaztutakoaren arabera egongo dira araututa.

2. Ordainketa geroratzea edo zatika ordaintzea onartzen bada, Ordenantza honek horietarako ezarritako araudiari lotu beharko zaio.

3. Zerga arlokoak ez diren zorrak horien gaineko arauak zehazten dituzten epeetan ordaindu beharko dira edo, halakorik ezean, Ordenantza honetan xedatutako aplikatu beharko da.

17. artikulua. Ordainketa-bideak.

1. Ordainketa ondorengo bideen bidez gauzatu ahal izango da:

- a) Erakunde Laguntzaileak.
- b) Bankuko edo Aurrezki Kutxako helbideratzearen bidez.
- c) Udalaren mesederako irakiteko kontuetan egindako Bankuko edo Aurrezki Kutxako transferentzien bidez.
- d) Bankuko edo Aurrezki Kutxako kontu korrante batera zuzenduta igorritako txeki baten bidez; behar bezala adostuta edo ziurtatuta egon beharko du, txekia igorleari zuzenduta igortzen bada izan ezik.
- e) Posta bidezko igorpena.
- f) Udal honek baimendutako beste edozein ordainketa-modu.

2. Esku-dirutan ordaindu beharreko zor guztiak legeko diru bidez ordaindu ahal izango dira, edozein delarik ere ordainketa jaso behar duen organo edo erakundea, ordainketa egiteko diru-bilketa epea eta zorraren zenbatekoa.

3. Diru-bilketa banku edo aurrezki kutxa laguntzaileen bidez gauzatuko da; zenbait salbuespen-egoeratan, Udal Diru-bilketako bulegoetan bertan egin ahal izango da.

18. artikulua. Erakunde laguntzaileak.

1. Diru-bilketaren Kudeaketan laguntzaileak dira Udal honek baimendutako Gordailu-erakundeak. Ondorengo funtzioak izango dituzte:

- a) Ordaintzera behartuta daudenek egindako diru-sarrerak onartzea Udal Administrazioak horretarako ateratako inprimakiak aurkeztuta.
- b) Diru-sarreretatik datozen funtsak Diru-bilketaren kontu mugatuan sartzea zergadunek eragiketarik egiten dituzten egunean berean.
- c) Kutxa-zerbitzua mantentzea mota horretako diru-sarreretarako lanegun guztietan Banku-erakundeentzat.
- d) Aldian-aldean ordaindutako kredituari eta ordainketa-datari buruzko datuak ematea euskarri informatikoen bidez.
- e) Funtsen transferentzia egitea Udalaren kontu murriztutik kontu operatibora hamabosteroko diru-sarreraren epe bakoitzaren amaieraren hurrengo zazpi lanegunen barruan eta hilabete bukaera baino lehen.
- f) Haien jarduera egokitzea alkatetzak emandako jarraibideetara Udal Diruzaintzaren bidez.

Gordailu-erakundeek eta gainerako laguntzaileek ez dute Udal diru-bilketako organo izaera izango inondik ere, zergadunarentzat Udalak igorritako eta diru-sarrera jasoko duen Erakunde Laguntzaileak behar bezala bideratutako agiriak izango duen kitatzeko indarra baztertu gabe.

2. Ordainketa erakunde laguntzaileen bidez gauzatzen denean, zordunari diru-sarreraren egiaztapena ematean zorretik salbuetsita geldituko da egiaztagirian agertzen den datatik aurrera eta bertan agertutako kopuruaren arabera; kreditu-erakundea une horretatik eta zenbateko horren arabera behartuta geldituko da, data

edo egiaztagiriaren baliozkotzean agertzen den zenbatekoa zehatza ez dela modu sinesgarrian frogatuko balitz.

19. artikulua. Bankuan edo aurrezki kutxan helbideratzea.

1. Ordaintzera behartuta daudenen haien zergen, prezio publikoen eta izaera publikoko bestelako diru-sarrera batzuen ordainketa helbideratu ahal izango dute edozein Finantza-erakundetan.

2. Helbideratzea ondorengo ordainketetarako erabili ahal izango da:

- a) Aldizkako epemugako eta ordaintzera behartuta daudenen taldeko jakinarazpeneko zerga bat, batzuk edo guztiak; eskaera egiteko mementoan dauden zerga-objektuetarako dauka eragina.
- b) Zerga-likidazioak edo Diru-bilketa Sekzioak kudeatutako izaera publikoko beste diru-sarrera batzuen gaineko likidazioak, dagokion ebazpena jakinarazi ondoren.
- c) Administrazioak egindako edozein ordainketa-errekerimendu, diru-bilketa borondatezko epealdian izan edo exekutiboan izan.
- d) Espediente exekutibo bat bertan sartutako zorren zenbateko osoarekin, gainordaina, interesak eta, kasuan-kasuan, kostuak barne.

3. Aldizkako izaerako zorrari eta borondatezko epealdiko jakinarazpen kolektiboari dagozkion ordainagiri helbideratuak helbideratze-kontuan zordunduko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako kobrantzaren iragarkian zehazturiko egunean.

Aldizkako kobrantzako eta jakinarazpen kolektiboko ordainagiriak epez kanpo helbideratuz gero, kontuan zordunduko da hilaren 5ean edo 20an edo hurrengo lanegunean eta helbideratuta geldituk oda dagokion zerga hurrengo urtetik aurrera. Helbideratuta ez dauden ordaingarriak kobratzeko borondatezko epealdia amaitutakoan, zerga helbideratzeko edozein eskaerak hurrengo urtetik aurrera izango du eragina.

4. Artikulu honetako 4. atalaren b), c) eta d) puntuetan aurreikusitako gainerako aukerei dagokienez, kontuan zordunduko dira hilaren 5ean edo 20an edo hurrengo lanegunean.

5. Banku-helbideratzearen bidez egindako ordainketak egintzat joko dira aipatu helbideratze horiek kontuan zorduntzeko datan eta diru-sarreraren egiaztagiri gisa hartuko da ordainketa helbideratuta dagoen gordailu-erakundeak horretarako egindako agiria.

20. artikulua. Helbideratzearen eskaera, aldaketa edo baliogabetzea.

1. Banku-helbideratze bidezko ordainketek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Ordaintzera behartuta dagoenak izan behar du ordainketa helbideratutako kontuaren titularra eta kontu horrek kreditu-erakunde batean egon behar du zabaldua. Administrazioak hala ezartzen duenean, behartuta dagoenaren titulartasuneko ez den kontu batean helbideratu ahal izango da ordainketa, harik eta kontu horren titularrak helbideratzea baimentzen badu.
- b) Ordaintzera behartuta dagoenak bere helbideratze-aginduaren berri eman beharko dio Administrazioari kasu bakoitzean ezarritako prozeduren arabera.

2. Helbideratzeak baliozkotasun mugagabea izango du, harik eta agindu-emaileak ez badu baliogabetzen edo beste erakunde edo kontu batera aldatzen, eta ez badio Udal Ogasunari egindakoaren berri ematen.

6. Helbideratzea edozein unetan espresuki baliogabetuko du interesdunak, eta bere eragina galduko du, edo Udalak ordainagiriak behin eta berriz itzuli ostean. Aldizkako izaerako eta jakinarazpen kolektiboko zergei dagokienez, helbideratze bat baliogabetzeak edo aldatzeak eragina izango du zordunketaren data baino 10 egun lehenago eskatuz gero.

3. Ordainketara behartuta dagoenari egotzi ezin zaizkion arrazoien eraginez helbideratutako ordainagiriak ez badira kontuan zorduntzen edo epez kanpo zorduntzen badira, Udal diruzainak baliogabetuko du premiamendu-erabakia eta ez dira gainordainak edo interesak eskatuko, ez eta, kasuan-kasuan, kosturik ere, baina aldez aurretik Diru-bilketa Sekzioak eginbide bat aurkeztu beharko du helbideratzea bideratzerakoan akatsa izan dela zehaztuta, helbideratzeen artxiboan behar bezalako egiaztapenak egin ostean. Gainera, baliogabetuta geldituko da premiamendu-erabakia Erakunde Laguntzaileek egindako diru-sarreraren atzerapena gertatzean; Diru-bilketa Sekzioak egiaztatgiri gisa artxibatuko du.

4. Udal Ogasunak ordaindu gabeko ordainagiri helbideratuen diru-bilketari ekingo dio premiamendu-bidetik. Helbideratutako ordainagiriak pagatzeari behin eta berriz utziz gero, helbideratzea baliogabetu egingo da.

21. artikulua. OHZren eta EJZren helbideratzea.

1. Aldizkako epemugako eta jakinarazpen kolektiboko zorrak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari eta Ekonomia Jardueren Zergari dagozkien eta ordainketa helbideratuta duten zorrak, borondatezko epealdian ordainketa automatikoa bi epetan zatikatu ahal izango da, zorraren zenbatekoaren %50ekoa bakoitza, eta horien epemuga Aldizkari Ofizialean argitaratutako kobrantzaren iragarkian zehazturikoa izango da; ezingo dira berandutze-interesak eskatu ahal izango. Zatikapen hori lehen zatia epemugaren barnean ordaintzeak baldintzatzen du; ez bada ordainketa hori burutzen, zor osoaren epealdi exekutiboa hasiko da.

2. Udalak ordainketa automatikoaren zatikatze hori aplikatu ahal izango du helbideratutako ordainagiriarentzako, aurreko puntuan ezarritako baldintza berekin, aldizkako epemugako eta jakinarazpen kolektiboko beste zor batzuetarako, harik eta kobrantzako iragarkian hala zehaztuta baldin badago.

22. artikulua. Banku-transferentzien bidezko ordainketa.

1. Udal kontu korronteren batera egindako banku-transferentzia bidezko ordainketa Diru-bilketa Sekzioak ordaintzera behartutakoari jakinarazten dion kasuetan soilik onartuko da.

2. Transferentziaren agindua zorraren zenbatekoaren berdina izango da; Administrazioaren errekerimenduan adierazitako erreferentzia zehatza agertu beharko da, baita ordaintzera behartutakoaren identifikazio zuzena ere, transferentziaren agindu-emailarekin bat ez badator ere.

3. Ordainketa-modu hau baliatzeak dakartzan banku-komisioak edo gastuak ordaintzera behartuta dagoenak hartu beharko ditu bere gain.

4. Ordainketa-une gisa hartuko da udal kontu korronteetan dagokion zenbatekoa sartzen deneko data, eta une horretatik aurrera Udal Ogasunaren aurrean ordaintzera behartutakoa zorretik libre geratuko da.

23. artikulua. Txeke bidezko ordainketa.

1. Zor bat ordaintzeko egindako txekeek, merkataritza arloko legeriak eskatzen dituen baldintza nagusiez gain, ondorengo ezaugarriak bete beharko dituzte:

a) Basauriko Udalaren aldeko txeke izendunak izatea.

- b) Erakunde jaulkitzaileak adostuta edo ziurtatuta egotea, noiz eta nola zehaztuta.

2. Ordaintzera behartuta dagoenari zorretik ordaindutako zenbatekoa kenduko zaio txekea diru bihurtzean. Kasu horretan, dagokion kutxan txekea sartu den egunetik aurrera izango du eragina.

24. artikulua. Ordainketa-ziurtagiria.

1. Zor bat ordaintzen duenak egindako ordainketaren egiaztagiri bat izateko eskubidea izango du. Ondorengo hauek izango dira eskudirutan egindako ordainketen ziurtagiriak:

- a) Baimendutako Banketxeek edo Aurrezki Kutxek edo Diru-bilketa Sekzioak behar bezala baliozkotutako ordainketa-gutunak.
- b) Diru-bilketa Sekzioak egindako eta behar bezala bideratutako zorraren ordainketa-ziurtagiriak.
- c) Udalak ordainketa-ziurtagiri izaera espresuki ematen dion beste edozein agiri.

2. Zorren ordainketa aurretik aipatutako agirietatik egokia dena erakutsita soilik justifikatuko da.

3. Ordainketa-ziurtagiriek, gutxienez, ondorengo datuak izan beharko dituzte zehaztuta:

- a) Izena eta abizenak edo izen sozial osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia, agertzen bada, eta zordunaren helbidea.
- b) Kontzeptua, zorraren zenbatekoa eta horri dagokion epea.
- c) Ordainketa-data.
- d) Ordainketa-ziurtagiria egin duen erakundea.

4. Ordainketaren ziurtagiriak bitarteko mekanikoen bidez ematen direnean, aurreko puntuko zehaztapenak zorduna eta ordaindutako zorra identifikatzeko moduko klabeen edo laburduraz adierazi ahal izango dira.

5. Aldearen eskariz okerreko diru-sarrerak itzultzeko prozeduretan, interesdunek itzultzearen eskaerari dagozkion diru-sarreraren ordainketaren jatorrizko agirien kopia aurkeztu beharko dute Diru-bilketa Sekzioak erkatuta diru-sarrera horiek gauzatu direla ziurtatze aldera, baita data, kobrantza-erakundea eta subjektu pasiboaren identifikazioaren egiaztapen eta aurretiazko itzulketa partzial edo osoa gauzatu ez dela ziurtatze aldera ere.

25. artikulua. Ordainketen egozpena.

1. Zorrek autonomoak dira. Zenbait zor ordaintzera behartuta dagoenak ordainketa bakoitza zorrari egotzi ahal izango dio modu librean hautatutako borondatezko epealdian.

2. Geroagoko epemugako zor baten kobrantzak ez dio Administrazioari kenduko kobratu ez diren aurreko beste zor batzuk kobratzeko eskubidea.

3. Epealdi exekutiboan diren zorrei dagokienez, zorraren kopuru osora heltzen ez den edozein zenbateko printzipalarekiko, gainordainarekiko eta interesekiko modu proportzionalean aplikatuko da, hurrengo puntuan zehazturiko irizpidearen arabera.

4. Nahitaezko betearazpeneko kasuetan eta ofizioko konpentsazioko kasuetan, ordaintzera behartuta dagoenaren zenbait zor pilatuta badaude eta guztiz ordaindu ezin badira, Administrazioak, zenbait kredituren lehentasuna ezartzen duten arauak baztertu gabe, ordainketa antzintasun handienetik txikienera aplikatuko zaie zorrei;

antzinatasun hori zor bakoitzaren ordainketarako borondatezko epemuga-datak zehazten du. Alabaina, Udal diruzainak, salbuespen gisa, ordainketaren beste aplikazio bat onartuko du berak zehazturiko baldintzen eta betekizunen arabera.

26. Ordainketa zainpean jartzea.

Ordainketara behartuta daudenek zorraren zenbaketakoa eta, kasuan-kasuan, egiaztatutako kostuak zainpean jarri ahal izango dituzte Udal Diruzaintzan eta ondorio etenarazleak izango dituzte.

II. ATALA. ORDAINKETAREN GERORATZEA ETA ZATIKATZEA.

27. artikulua. Geroratzea eta zatikatzea. Irizpide nagusiak.

1. Zerga-zorren eta izaera publikoko gainerakoen ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango da, Zergen Foru Arau Orokorraren 63. artikuluan eta ordenantza honetan aurreikusitako moduan.

2. Ordainketa-plan terminoa erabiliko da ordainketaren geroratzea eta zatikatzea batera izendatzeko.

3. Ondorengo hauek dira ordainketa-plan bat emateko irizpide nagusiak:

a) 150 euroko edo hortik gorako zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira ordaintzera behartuta dagoenaren eskariz.

b) Epeei dagokienez:

- 6.000 eurotik beherako zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira hamabi eguneko gehieneko epean.
- Zenbatekoa 6.000 eurotik gorakoa bada, epeak 18 hilabetera arte zabaldu ahal izango dira.

c) Zatikatzeeetan epeen ordainketa-aldizkakotasuna hilabetekoa izango da.

d) Zatikatzeez 50 euroko gutxieneko zenbatekoa izango dute.

4. Salbuespen gisa, ordaintzera behartuta dagoenaren ordainketa-ahalmenaren eta zenbateko egokiaren arabera, aipatu zor-zenbateko, amortizazio-epealdi, aldizkakotasun edo zatikatze-zenbatekoak betetzen ez dituzten ordainketa-planak baimenduko dira.

5. Derrigorrezko ordainketa-modua banku-helbideratzea izango da; behartuta dagoenaren titulartasunekoa ez den kontu batean helbideratu ahal izango da ordainketa, harik eta kontu horren titularrak helbideratzea baimentzen badu.

Epemugak, oro har, dagokion hilabetearen 5. edo 20. egunean edo hurrengo lanegunean izango dira.

6. Ordainketa-plan baten eskaerari erantzun aurretik, zorra ordaintzeko kontuan diru-sarrerak egin ahal izango dira; horrek ez du esan nahi, baina, ordainketa-planaren eskariari baiezkota eman zaionik.

7. Ordainketa-plan baten eskaera bideratuko da harik eta, eskatutako zorraz gain, zordunak epealdi exekutiboan geroratu edo baliogabetu gabe dituen zor guztiak barneratzen baditu.

8. Borondatezko epealdian, ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera egin gabe, edozein zerga-zorri edo izaera publikoko beste zorren bati dagokion diru-sarrera falta bada, bertan behera geldituko da baimendutako ordainketa-plana eta beste ordainketa-plan bat egingo da zor berri hori ordaintzeko dagoen zordunketaren barnean sartuta; gainera, ordaintzeko kuota handitu egingo da eta mantendu egingo da amortizazio-epealdia eta banku-helbideratzea.

9. Ez betetzeagatik edo beste zor exekutibo baten pean erortzeagatik bertan behera utzitako aurreko plan batzuk errepikatzea dakarren ordainketa-plan baten eskaera aurkeztuz gero, ez da onartuko zatikatzearen zenbatekoa handitzea edo amortizazio-epealdia murriztea ekarriko duten aldaketak bertan barneratuta ez badaude eta eskaera egiten den unean kontuan diru-sarrera bat egin beharko da.

28. artikulua. Eskumena.

1. Ordainketa-planen eskaeren gaineko erabakiak hartuko dira bermea aurkezteko edo ez aurkezteko betebeharrari erantzunez, ordenantza honetako 27. artikulua 1. atalean zehazturiko baldintzak beteta.

2. Ordenantza honetako 27. artikulua 1. atalean zehazturiko baldintzak ez betetzeagatik bermea aurkezteko betebeharra dagoenean:

- a) Ordainketa-planaren eskaera Udalaren Erregistro Orokorrean egin beharko da.
- b) Ordainketa-plan horri baiezkua edo ezezkoa emateko organo eskuduna alkatea bera izango da.
- c) Eskaera Udal Diruzainari zuzenduta egongo da eta berari dagokio ordaintzera behartuta dagoenaren finantza eta ekonomia mailako egoera aztertzea zordunketak kitatzeko aukerari dagokionez.
- d) Bermeak onartzea, ordezkatzeta eta indargabetzea Udal diruzainaren eskumenekoa izango da. Gainera, Udal diruzainak, erabat edo modu partzialean, bermeak ematea dispentsatu ahal izango du kasu bakoitzean zehazturiko baldintzen arabera, aurkeztutako aitorpenetik Administrazioak egiaztatu badu ez dela bermeak emateko ondasunik eskubiderik ala ondasun edo eskubide nahikorik.
- e) Diru-bilketa Sekzioaren buruak diruzainari informazioa emango dio behin zor bermedun osoa ordaindu dela egiaztatuz gero bermea kendu ahal izateko. Berme-kentze hori diruzainaren ebazpen soil batez egingo da, ofiziozko izapidea abiatuta.

3. 27. artikulua 1. atalean zehazturiko baldintzak betetzeagatik bermea aurkezteko betebeharrak ez dagoenean:

- a) Ordainketa-planaren eskaera Udalaren Diru-bilketa bulegoan egingo da.
- b) Ordainketa-plan horri baiezkua edo ezezkoa emateko organo eskuduna Udal diruzaina izango da.
- c) Eskaera eta automatikoki jasotako onespina Diru-bilketa Sekzioko langileek formalizatuko dituzte, harik eta ordainketa-plana ordenantza honetan jasotako irizpide nagusiak betetzen dituzten baldintzen arabera eskatzen bada.
- d) Irizpide nagusiak betetzen ez dituzten baldintzetan eskatzen bada, Diru-bilketa Sekzioko langileek formalizatuko dute baina ordainketa-plan hori ez da automatikoki onartuko, interesdunak eskatu zaizkion agiriak aurkezten dituenetik bost eguneko epean baino, Udal diruzainak zehazturiko irizpideen arabera. Eskatutako dokumentazioa ez bada 10 eguneko epean aurkezten, geroratze- edo zatikatze-eskaera ez-aurkeztutzat joko da.

29. artikulua. Eskaera.

1. Ordainketa-plan baten eskaera ordaintzera behartuta dagoenak egingo du Udalaren Erregistro Orokorrean edo Diru-bilketa bulegoan, aurreko artikuluan zehazturiko artikuluen arabera.

2. Udal Diruzaintzak behar duen guztia eskura izango du aurreko puntuan aipaturiko eskaerak ordainketa-planak onesteko edo ez onesteko irizpideak eta diruzaintza mailako zailtasunak funtsatzeko beharra zehaztuko dituen agiri espezifiko batean egin daitezen, aurreko ataletan zehazturiko agiriak aurkeztuta.

3. Geroratze- edo zatikatze-eskaeran ondorengo guztia egongo da zehaztuta nahitaez:

- a) Izena eta abizenak, izen soziala edo izendapena, eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbide fiskala eta, kasuan-kasuan, haren ordezkaria den pertsonarena, telefonoa eta helbide elektronikoa, izanez gero.
- b) Eskatzen den geroratzeari edo zatikatzeari dagokion zerga, Udal Administrazioak egindako ordainketa-eskaera aurkeztuta. Eskaerak epealdi exekutiboan dagoen zerga osoa barneratu beharko du.
- c) Eskaturiko geroratze- edo zatikatze-eskaeraren epeak eta baldintzak.
- d) Eskaera egitearen arrazoiak.
- e) Ordenantza honetako 27. artikulua 1. ataleko baldintzak betetzen ez bada, eskatzen den berme nahikoa. Eskaera-fasean kreditu-erakundearen abal solidarioa eskaintzen denean, nahikoa da bermea eman duen erakundearen konpromiso-gutuna aurkeztea. Gainerako bermeetarako, bermean eskaintako ondasunen balorazioa aurkeztu beharko da; balorazio hori profesional independenteek egin beharko dute eta, gainera, ondasun higiezinak direnean, jabetza-eskriburaren fotokopia eta Jabetza-erregistroaren karga-ziurtagiria.
- f) Banku-helbideratzearen agindua, geroratutako edo zatikatutako ordainketen kobrantza helbideratuko den finantza-erakunde bateko banku-kontuaren zenbakia zehaztuta (20 digituak).
- g) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.

4. Bermearen dispentsa osoa edo partziala eskatzen denean, eskatzaileak, gainera, ondorengo dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Pertsona fisikoek:

- Ondasun nahikorik ez dutela adierazten duen aitortpena.
- Erakunde ordaintzaileak behar bezala kontratatutako nomina edo diru-sarreraren egiaztagiria.
- Azken bi urteetako PFEZren aitortpena.
- Azken urteko banku-mugimenduak.
- Erroldaren ziurtagiria.

b) Pertsona juridikoek:

- Ondasun nahikorik ez dutela adierazten duen aitortpena.
- Azken hiru ekitaldietako urteko kontuak eta ikuskaritza-txostena, baldin badago.
- Bideragarritasun-plana, baldin badago, eta ekonomia, finantza eta ondare mailan garrantzia duen eta egokia den eta eskatutako gerorapena betetzeko aukera justifikatzen duen beste edozein informazio-mota.

5. Geroratze- edo zatikatze-eskaeraren eraginak:

- a) Ordainketa-planaren eskaera borondatezko epealdian aurkeztu bada eta aipatu epealdia amaitzerakoan eskaeraren gaineko erabakirik hartzen ez bada, bertan behera geldituko da epealdi exekutiboaren hasiera.

- b) Ordainketa-planaren eskaera epealdi exekutiboan aurkezten bada Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 60. artikulua 3. atalean zehazturiko epea amaitu aurretik, ez da abiatuko zordunaren ondarearen kontrako exekuzioa eta eskatu ahal izango den gainordaina exekutiboa izango da.
- c) Ordainketa-planaren eskaera aurreko puntuan zehazturiko epea amaitu ostean aurkezten bada bertan behera geldituko da premiamendu-prozedura. Alabaina, eskaeraren data baino lehen bideratutako agindu guztiek aurrera jarraituko dute eta dagokien eragina izango dute. Ordainketa-plana onetsiko balitz eta zorraren zenbatekoa murriztuko balitz eskaera-data baino lehen bideraturiko bahikuntza-aginduen eraginez, ofizioz bidaliko zaio zergadunari ordainketa-planaren onespén berri bat; bertan mantendu egingo da ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa eta murriztu egingo da amortizazio-epealdian, banku-helbideratzea mantenduta.

30. artikulua. Bermeak.

1. Arau orokor gisa, eskatzaileak kreditu-erakundeko abal solidarioa aurkeztuko du berme gisa. Abal gisa osatutako bermeak baliozkotasuna izango du Udalak hori bertan behera uztea baimentzen ez duen bitartean. Aipatu abal hori lortzea ezinezkoa balitz edo horrekin enpresaren bideragarritasuna estutasun larrian jartzen bada, diruzainak nahikotzat jotzen duen beste edozein berme.
2. Bermearen zenbatekoa: bermeak ordaintzeko dagoen zerga berdindu beharko du eta horri zenbateko horren ehuneko 25 gehitu beharko zaio, eska daitezkeen berandutze-interes guztiez gain.
3. Bermearen formalizazioa: bermea onespén-akordioaren gaineko jakinarazpena egiten denetik hilabete bateko epean formalizatu beharko da eta horren eragingarritasuna horren prestazioaren arabera egongo da baldintzatua. Epe hori hiru hilabetera arte zabaldu ahal izango du Udal diruzainak, interesdunak, aurretik, arrazoitutako eskaera bat aurkezten badu, epe horretan formalizatzea eragozten duten arrazoiak daudela justifikatzen denean. Epe horiek igarotakoan bermea ez bada formalizatu, onespén-akordioa bertan behera geldituko da.
4. Bermea kenduko da zorra erabat ordaindu dela egiaztatzen denean.

31. artikulua. Bermeen galdagarritasun eza eta dispentsa.

1. Oro har, ez da bermerik eskatuko geroratzea edo zatikatzea eskatzen diren zorren zenbatekoa 7.500 eurotik beherakoa denean edo eskaturiko geroratze- edo zatikatze-epealdia ez denean hiru hilabete baino gehiagokoa.
2. Udal diruzainak, erabat edo modu partzialean, bermeak ematea dispentsatu ahal izango du kasu bakoitzean zehazturiko baldintzen arabera, aurkeztutako aitorpenetik Administrazioak egiaztatu badu ez dela bermeak emateko ondasunik eskubiderik ala ondasun edo eskubide nahikorik.
3. Ez da bermerik eskatuko Zuzenbide Publikoko Erakundeek eskatutako ordainketa-planetarako.

32. artikulua. Ebazpena.

1. Ordainketa-planen gaineko ebazpena bi hilabeteko gehieneko epealdian eman beharko da. Epe hori zabaldu ahal izango da akatsik izanez gero, oker horiek konpontzeko izapideak irauten duen bitartean. Gehieneko epea amaitutakoan ebazpenik eman ez bada, ezezkia eman dela ulertuko da.
2. Ordainketa-planak onesteko ebazpenetan zehaztuko dira kasu bakoitzaren eragingarritasuna baldintzatuko duten betekizunak.

Ebazpenean agertu beharko dute epeek eta ordaintzera behartuta dagoenak geroratze- edo zatikatze-eskaeran zehaztutako horien banku-kontuko helbideratzeak. Epemuga hilabete bakoitzaren 5. edo 20. eguna edo hurrengo laneguna izango da.

Ebazpenean eskaturiko epeakiko eta baldintzekiko desberdinak diren epeak eta baldintzak zehaztu ahal izango dira.

3. Ebazpena ezezkoa balitz eta geroratze- edo zatikatze-eskaera borondatezko ordainketa-epealdian egingo balitz, zorra Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 60, artikulua 1. atalaren b) puntuan zehazturiko epeetan ordaindu beharko da, dagozkion interesekin.

Geroratzea edo zatikatzea Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 60, artikulua 3. atalean zehazturiko epealdian eskatuko balitz, hamar eguneko epea emango da jakinarazpenetik hasita, zorraren diru-sarrera egin ahal izateko gainordain exekutiboa barne; epe horretan ezingo da eskatu premiamendu-gainordaina.

4. Onespenaren edo ukapenaren jakinarazpena eskatzailearen helbide fiskalean edo berak jakinarazpena jasotzeko zehazturikoan egingo da. Alabaina, epe berdinean eta eskaeran zehazturiko zenbatekoak gainditzen ez dituztela egiten bada, kobrantza egin ahal izango da helbideratze-kontuan zordunduta, akordioaren jakinarazpen eragingarriaren data baino lehen.

33. Baliogabetze aurreratua.

Onetsitako ordainketa-plana erabat edo modu partzialean modu aurreratuan baliogabetuko da ondorengo kasuetan:

- a) Zordunaren eskaeraz.
- b) Ofiziozko konpentsazio bidez, geroratutako edo zatikatutako zorrak borondatezko ordainketa-epean egon ezean, Administrazioak ordaintzera behartutako pertsonaren alde onartutako edozein krediturekin, bai diru-sarrerak itzultzearen eraginez, bai beste arrazoiren bat dela medio. Konpentsatutako zenbatekoa zorra kitatzeko erabiliko da eta zergadunari, ofizioz, ordainketa-planaren onespén berri bat igorriko zaio, ordaintzeko dagoen zorraren zenbatekoko izango dena; bertan, mantendu egingo da kuotaren zenbatekoa, murriztu egingo da amortizazio-epea eta mantendu egingo da banku-helbideratzea.

34. artikulua. Interesak.

1. Geroratutako edo zatikatutako ordainketen zenbatekoek Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 26.3 artikulua eta Aurrekontu Lege Orokorraren 17. artikulua aipatzen dituzten berandutze-interesa edo legezkotik interesa sortuko dute, zerga arloko zorrak diren edo ez diren arabera, hurrenez hurren.

2. Ordainketa-plana onesten bada, interesak zorraren gainean kalkulatu dira, baldin bada, dagokion epealdi exekutiboaren gainordaina kanpoan utzita, eta borondatezko epemugatik geroratzerako edo zati bakoitzerako diru-sarrera egiteko emandako epea amaitu arte igarotako denbora neurtuta. Zati bakoitzetik sortutako interesak zati bakoitza ordaindu beharreko epealdian eta zati horrekin batera ordaindu beharko dira.

3. Ordainketa-plana ukatuko balitz edo zorraren diru-sarrera ebazpena baino lehen egingo balitz, borondatezko epemugatik ukapen-ebazpenaren edo zorraren diru-sarreraren data arteko epearen interesak kalkulatu beharko lirateke.

35. artikulua. Geroratutako edo zatikatutako zenbatekoen ordainketa faltaren ondorioak.

1. Geroratzeetan, emandako epemuga iritsi eta ordainketarik egiten ez bada: eskaera borondatezko epealdian aurkeztu bada epealdi exekutiboa abiatuko da eta eskaera epealdi exekutiboan aurkeztu bada premiamendu-prozedurari jarraituko zaio ordaintzeko dagoen zorra gauzatzeko.

2. Onetsitako ordainketen zatikatzeetan, epemugetakoren bat iritsi eta ordainketarik egiten ez bada, honela jokatu da:

- a) Ordaindu gabeko zatirako eta epemugaren hurrengo egunetik aurrera sortutako interesetarako, konturako zorduntze berri bat igorriko da epemuga gisa hilabete bakoitzaren 5. edo 20. egunean edo hurrengo lanegunean hurrengo bidalketa hartuta eta interesdunari konturako zorduntzearen jakinarazpena igorriko zaio.
- b) Aipatu zordunketaren ordainketa betetzen ez bada, amaitutzat joko dira ordaintzeko dauden zatiak eta epealdi exekutiboa abiatuko da edo premiamendu-prozedurarekin jarraituko da, zatikatzea borondatezko epealdian edo exekutiboan izan den arabera.
- c) Geroratutako edo zatikatutako zorraren epemuga iritsi eta ordainketa egiten ez bada, berriz kalkulatuko dira ordainketa egiten den unera arteko berandutze-interesak kalkulu nagusiaren oinarri gisa.

III. ATALA. PRESKRIPZIOA.

36. artikulua. Zorren preskripzioa eta baliogabetzea.

1. Zerga-zorren ordainketa eskatzeko epea lau urtetan preskribatzen da, borondatezko epea maiatzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Zerga arlokoak ez diren izaera publikoko zorren preskripzio-epea horien kudeaketa arautzen duen araudi partikularrean oinarrituta zehaztuko da. Eskubide publikoko baliabidea arautzen duen Legean aurreikuspen zehatzik ez balego, Aurrekontuen Legearen 15. artikuluan zehaztuta dagoen lau urteko preskripzio-epea aplikatuko litzateke.

3. Preskripzio-epea eten egingo da ondorengo kasu hauetan:

- a) Administrazioak ordaintzera behartuta dagoenari modu formalean jakinarazita egindako edozein ekintzaren eraginez; zorraren diru-bilketara zuzenduta egongo da modu eragingarrian.
- b) Edozein motako erreklamazioak edo errekurtsioak aurkeztuta, aipatu erreklamazio edo errekurtsio horiek bideratzerakoan ordaintzera behartuta dagoenari modu formalean jakinarazita, Kontzertu Ekonomikoan aurreikusitako Arbitraje-batzordearen aurrean gatazka bat planteatuta edo zordunaren lehiaketaren aitortpen bidez edo zorra kobratzera zuzendutako ekintza zibilak edo penalak gauzatu, baita bidean den administrazio-prozedura bat geldiaraztea agintzen duen jurisdikzio-organismoaren jakinarazpena jasota ere.
- c) Ordaintzera behartuta dagoenaren edo hirugarren baten edozein jarduera frogagarriren bidez haren kontura eta jakinaren gainean egonda, zorra aitortze, ordaintze edo kitatze aldera.

4. Etendura horren eraginez, preskripzio-epea berriz kontatzen hasiko da etendura-datatik aurrera, Zergei Buruzko Foru Arau Orokorrean zehazturiko salbuespenekin.

Preskripzio-epea eteteen, etendura horrek ordaintzera behartuta dauden guztiengan izango du eragina.

5. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da eta diruzainak aitortuko du; diruzainak, urtero, bakarka preskribatu gisa izendatu ez diren urtean preskribatutako zor guztien gaineko espediente kolektiboa bideratuko da. Espediente hori organo eskudunaren onespeneraren mende egongo da, zenbatekoaren arabera, alkatearen edo Gobernu-batzordearen mende; aipatu espediente hori Kontu-hartzearen bidez fiskalizatu ahal izango da. Preskribatutako zorrei baja emango zaie udal kontabilitatean.

6. Preskripzio-epeen kontaketa eta horien etendura Zergei Buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

IV. ATALA. KONPENTSAZIOA.

37. artikulua. Konpentsazio-arau orokorrak.

1. Diru-bilketa fasean, bai borondatezkoan, bai exekutiboan, dauden Udal Ogasunaren aldeko zorrak iraungi ahal izango dira erabat edo modu partzialean konpentsazio bidez, Udal Ogasunak aitortutako zordunaren aldeko kredituekin.

2. Konpentsazioa ofizioz edo ordaintzera behartuta dagoenaren eskariz adostuko da.

Alkatea da Udal Diru-bilketa Sekzioari egotz dakioken diru-bilketa kudeaketaren mende dauden zorren konpentsazioa onesteko organo eskuduna, zordunaren aldeko ordainketekin.

38. artikulua. Konpentsazioa ordaintzera behartuta dagoenaren eskariz.

1. Ordaintzera behartuta dagoenak bai borondatezko epealdian dauden zorren konpentsazioa eskatu ahal izango du, bere alde aitortutako kredituekin.

2. Konpentsazio-eskaerak ondorengo datuak bilduko ditu:

- a) Izena eta abizenak edo izen sozial osoa, ordaintzera behartuta dagoenaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbide fiskala eta, kasuan-kasuan, haren ordezkariarena.
- b) Konpentsatzea eskatutako zorraren identifikazioa, gutxienez, haren zenbatekoa, kontzeptua eta borondatezko epean diru-sarrera egiteko epearen epemuga-data zehaztuta.
- c) Udal Ogasunak eskatzailearen alde aitortutako kredituaren identifikazioa eta horren konpentsazioa zenbatekoa eta kontzeptua zehaztuta ematen da. Zorrak eta kredituak zordun berarenak izan behar dute.
- d) Kreditua beste pertsona bati eskualdatu, laga edo endosatu ez izanaren aitortpen espresua.
- e) Lekua, data eta interesdunaren sinadura.

3. Konpentsazio-eskaera bat borondatezko epean aurkezteak eragotzi egingo du zorraren epealdi exekutiboa abiatzea hori bideratzerakoan aitorturiko kredituarekin batera. Horrek ez du eragotziko kredituaren aitortpen-data arte edo ukapen-ebazpenaren data arte izan daitezkeen berandutze-interesen sortzapena.

4. Zorraren iraungipena eskaera aurkeztu den unean edo zorretarako edo kredituetarako eskaturiko baldintzak betetzen direnean gertatuko da, une hori aipatu aurkezpena baino geroagokoa bada. Konpentsazio-akordioak iraungipen hori aitortuko du.

39. artikulua. Ofiziozko konpentsazioa.

1. Zerga-administrazioak ofizioz konpentsatuko ditu zerga-zorrak eta epealdi exekutiboan dauden zuzenbide publikoko gainerako zergak.

2. Gainera, ofizioz konpentsatuko dira borondatezko epealdian diru-sarrera egiteko epeko egiaztapen mugatuko edo ikuskaritzako prozedura berdin batetik edo aurreko bat baliogabetu izanagatik martxan jarritako likidazio berri baten egintzatik eratorritako sartu eta itzuli beharreko diru-kopuruak.

3. Ofizioz konpentsatu ahal izango dira, borondatezko epealdian diru-sarrera egiteko epea amaituta dagoenean, zuzenbide publikoko Erakundeek Udal honekin dituzten iraungitako zorrak, zor likidoak eta zor galdagarriak.

4. Kredituak eta zorrak, azken hori borondatezko epean egonik ere, zerga-helburu eta epealdi berari aipamena egiten badiote, Administrazioak ofizioz konpentsatu ahal izango ditu zenbateko konkurrentearen arabera, eta hortik sor daitekeen diferentzia erreklamazio- edo itzultze-xede izango da, harik eta kredituaren titularrak espresuki baimentzen badu, eta baimen horretan zehaztuko du ez duela hura itzultzea eskatuko bidezkoa ez den diru-sarreragatik.

5. Artikulu honetan arauturiko ofiziozko konpentsazioa gauzatze aldera, hirugarren baten aldeko betekizun aitortu bat dagoen bakoitzean ordainketa gauzatu aurretik, Diruzaintza Sekzioari kontsulta egingo zaio hirugarren horrek epealdi exekutiboan zorrak bat ote duen edo zuzenbide publikoko Erakunde bat den jakiteko; kasu horretan, Diru-bilketa Sekzioari igorriko zaio konpentsazio-espedientea bidera dezan.

6. Zorren iraungipena epealdi exekutiboa hasten den unean gertatuko da edo zorretarako eta kredituetarako eskaturiko baldintzak betetzen direnean, une hori geroagokoa baldin bada. Konpentsazio-akordioak iraungipen hori adieraziko du.

Artikulu honetako 2. atalean aurreikusitako kasuan, iraungipena zorrak eta kredituak bat egiten duten unean gertatuko da.

40. artikulua. Erakunde Publikoen zorrak.

1. Udalaren aldeko zorrak, zorduna Lurralde Erakunde bat, Erakunde Autonomo bat, Gizarte Segurantzak edo Zuzenbide Publikoko Erakunde bat denean eta erakunde horren jardura ez da ordenamendu pribatuaren arabera arautzen ez denean, ofizioz konpentsatu ahal izango dira borondatez epean diru-sarrera egiteko epea igarotakoan.

2. Konpentsazioa Erakunde Publikoen zorrak iraungitzeko bide gisa aplikagarria ez denean Erakunde horiek Udalaren kontrako krediturik ez dutelako, diruzainak Erakunde zordunaren Kontu-hartzeari eskatuko dio udalari ordaintzeko betekizuna aitortzearen egiaztatzea.

Diru-bilketa Sekzioaren buruak Udal diruzainari emango dio bere ikerketen ondorioz bildu duen dokumentazioa jasoko duen espedientea. Zorren eta zordunaren izaera eta espedientearen tramitazioaren garapena aztertu ostean, diruzainak ondorengo jardura-proposamen bat egingo du. Hauetako bat izan daiteke jardura-proposamen hori:

- a) Estatuko Administrazioari edo Administrazio Autonomoari eskatzea zorren zenbateko bereko atxikipena aplikatu dadin eta Udalaren esku jar dadin, Erakunde zordunaren alde agindu daitekeen transferentziei kargua eginda.
- b) Foru Ogasunaren lankidetzak eskatzea zorrak egikaritzeko.

Aurreko puntuan aipaturiko jardueretatik kreditu-egikaritzarik ez badator, ikertu egingo da ondare-ondasunak dauden ala ez, behar izanez gero horiek bahikuntza agintze aldera.

Gauzatu beharreko jarduerak alkateak onetsi beharko ditu diruzainaren proposamenez eta horren ebatzpenetik jakinarazpen formala igorriko zaio Erakunde Zordunari.

41. artikulua. Konpentsazioaren eraginak.

1. Konpentsazioa adostu ostean, zorrak eta kredituak zenbateko konkurrentearen arabera joko dira iraungitzat.
2. Zuzenbide Publikoko Erakundeen zorren konpentsazioen kasuan, kreditua zorra baino txikiagoa baldin bada, kreditua gainditzen duen zorraren zatitik segidako konpentsazio batzuk hitzartuko dira kredituekin eta, aurrerago, erakunde horien aldeko gisa onartuko dira.
3. Gainerako kasuetan, kreditua zorra baino txikiagoa bada, diru-bilketa prozedurari jarraituko zaio kreditua gainditzen duen zorraren zatitik.
4. Kreditua zorra baino handiagoa baldin bada, konpentsazioa hitzartu ostean, interesdunari diferentzia ordainduko zaio.
5. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, Administrazioak interesdunari zorraren iraungipenari dagokion egiaztagiria eman behar dio, konpentsatutako kreditua iraungitzat joko duen hitzarmena egin behar du eta egokiak diren kontularitza-eragiketak gauzatu beharko ditu.

V. SEKZIOA. HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK.

42. Zordun kobraezina eta kreditu kobraezina.

1. Hutsegina gisa hartuko dira ordaintzera behartuta daudenak haien zorra ezin bada bideragarri egin dagozkion diru-bilketa prozeduretan haien kaudimen-gabezia frogatzen baldin bada.
2. Kreditu kobraezintzat joko dira zordun nagusiak eta, kasuan-kasuan, erantzule solidarioak eta subsidiarioak kaudimen-gabeziak direlako eta hutsegintzat jotzen direlako premiamendu-prozeduran bideragarri egin ezin diren zorrak.

43. artikulua. Prozedura.

1. Diru-bilketa Sekzioak, diruzainaren zuzendaritzapean, zuzenean edo beste udal organo batzuen bidez, partikularren edo beste erakunde batzuen gainean egin beharreko eta zerga-kredituak eta zuzenbide publikoko gainerako zergak egikaritzea helburu duten informazio-jarduerak gauzatu beharko ditu.

Jarduera horiek jasota geldituko dira espedientean zordun nagusiek eta erantzule solidarioek bahitu edo egikaritu daitekeen ondasunik edo eskubiderik ez izatea justifikatzeko eta hutsegintzat jo ahal izateko. Udal diruzainak joko du hutsegintzat.

2. Zordun nagusiak eta erantzule solidarioak hutsegintzat jo ostean, erantzule subsidiariorik ba ote dagoen ikertuko da. Erantzule subsidiariorik ez badago edo horiek ere hutseginak badira, kreditua kobraezintzat joko da.

Kreditu kobraezin gisa jotze aldera, Diru-bilketa Sekzioaren buruak espedienteak behar bezala dokumentatuko ditu eta diruzainari igorriko dizkio ordaintzera behartutako kaudimen-gabezia frogatuagatik kredituen behin-behineko baja-proposamena egin dezan eta Alkatetzaren edo Gobernu-batzordearen dekretu bidez onets dadin zenbatekoa; baja-proposamen hori Kontu-hartzearen bidez fiskalizatu ahal izango da.

44. artikulua. Kreditua kobraezintzat jotzearen eraginak.

1. Kreditua kobraezintzat jotzeak ez dakar berehala zorraren iraungipena, dagozkien kredituen kaudimen-gabeziagatik behin-behineko konturako baja bakarrik baizik.

Kobraezintzat jotze horrek ez du eragozten legeen arabera egikari daitezkeen ekintzak dagokienaren kontra egikaritzea, harik eta Administrazioak ordainketa eskatzeko eskubidea preskribatu bada.

2. Diru-bilketa Sekzioak zaindu egingo du hutsegintzat jotako behartuek eta erantzuleek bat-batean kaudimena izan ote dezaketen, horretarako diruzainak zehazturiko jarduerak burututa. Helburu horrekin, diruzainak udal informazio nabarmenena aldian-aldian eskura izateko eta ezagutzeko administrazio-zirkuituak antolatuko ditu.

Berehalakoan egoera hori gertatuko balitz eta zorrak preskribatuta egongo ez balira, kobratu gabeko kredituak birgaitzeari ekingo litzaioke.

Diru-bilketa Sekzioaren buruak zordunak kaudimena baduela jakingo balu, diruzainari jakinarazi beharko lioke eta azken horrek proposatuko du kobratu gabeko kreditua birgaitzea, Alkatetzaren Dekretu bidez onetsi dadin.

3. Zorra behin betiko iraungita geldituko da preskripzio-epealdian birgaitzen ez bada.

4. Ordaintzera behartuta dagoen bat hutsegintzat jotzen bada, amaitutzat hartuko dira hutsegintzat jotzeko data baino geroagoko epemuga dutenak eta, horren arabera, baja emango zaie, harik eta beste behartu edo erantzule batzuk ez baldin badaude.

5. Zorduna hutsegintzat jotzearen berri eman beharko da, Merkataritzako Erregistroan izena emandako pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, Udal diruzainak egindako Erregistroan idazteko agindu baten bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Araudiaren 40. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Erregistro hori derrigortuta egongo da Diru-bilketa Sekzioari jakinaraztera erakunde zordunaren gainean inskribatzeko aurkezturiko edozein ekintza, kobraezintzat jotako kredituak birgaitu ahal izateko.

45. artikulua. Kreditua kobraezintzat jotzearen justifikazioa.

1. Prozedura-legezketasunaren printzipioaren errespetua eskura dauden baliabideen erabilerako eragingarritasun administratiboarekin batze aldera, jarraian zenbait jarduera zehatz aipatuko dugu. Jarduera horiek kontuan hartu beharko dira kreditua kobraezintzat jotzea justifikatzeko eta behar bezala dokumentaturik egon beharko dute dagozkien espediente exekutiboetan; baldintza horiek kreditua kobraezintzat jotzeko proposamena baino lehenago egiaztatu beharko dira.

2.- Justifikazio-dokumentazioa desberdina izango da zorraren zenbatekoaren arabera. Ondorengo kasuak bereizi behar dira:

2.1.- 30 eurotik beherako zor pilatuengatiko espedienteak.

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.

2.2.- 30 eta 300 euro arteko zor pilatuengatiko espedienteak.

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Espedientean ziurtatu behar izango da zorduna ez dela ordaintzera behartutako pertsona gisa agertzen Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan edo

jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erroldan, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sekzioak egindako Ondasun-ziurtagiri baten bidez.

- c) IFZ izanda, egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- d) Zordunaren IFZ ez izanda, egiaztatu egin beharko da Udal datu-baseetan kontsultak egin direla zorra egikaritze aldera.
- e) Egiaztatu egin beharko da soldatak, lansariak eta pentsioak bahitzeko saiakerak egin direla eta ezinezkoa izan dela, pertsona fisikoen kasuan.

2.3.- 300 eurotik gorako zor pilatuengatiko espedienteak, pertsona fisikoen izena zehaztuta dituztenak:

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Espedientean ziurtatu behar izango da zorduna ez dela ordaintzera behartutako pertsona gisa agertzen Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan edo jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erroldan, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sekzioak egindako Ondasun-ziurtagiri baten bidez.
- c) IFZ izanda, egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- d) Zordunaren IFZ ez izanda, egiaztatu egin beharko da Udal datu-baseetan eta beste datu-base batzuetan kontsultak egin direla zorra egikaritze aldera.
- e) Egiaztatu egin beharko da soldatak, lansariak eta pentsioak bahitzeko saiakerak egin direla eta ezinezkoa izan dela.
- f) Egiaztatu egin beharko da zordunaren izenean ez dagoela ondasun inskribatuta Jabego-erregistroen Aurkibide Nagusiaren Zerbitzuan, ezta beste Erregistro Publiko batzuetan ere.

2.4.- 300 eurotik gorako zor pilatuengatiko espedienteak, pertsona juridikoen izenak zehaztuta dituztenak:

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Espedientean ziurtatu behar izango da zorduna ez dela ordaintzera behartutako pertsona gisa agertzen Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan edo jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erroldan, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sekzioak egindako Ondasun-ziurtagiri baten bidez.
- c) IFZ izanda, egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.

- d) Zordunaren IFZ ez izanda, egiaztatu egin beharko da Udal datu-baseetan eta beste datu-base batzuetan kontsultak egin direla zorra egikaritze aldera.
- e) Egiaztatu egin beharko da zordunaren izenean ez dagoela ondasun inskribatuta Jabego-erregistroen Aurkibide Nagusiaren Zerbitzuan, ezta beste Erregistro Publiko batzuetan ere.
- f) Merkataritzako Erregistroak emandako informazioa aurkeztu beharko da.

3. Zirkulazio-isunei dagozkien espediente exekutiboen eraginez kobraezinak diren kredituen espedienteak bideratzerakoan, zenbait bahikuntza-motako emaitza txarraren justifikazio-dokumentazioa desberdina izango da zorraren zenbatekoaren arabera. Ondorengo kasu hauek bereiziko ditugu:

3.1. Zorraren zenbatekoa 92 eurokoa edo gutxiagokoa da: ez dute emaitzarik izan zenbait banku-erakundetan funtsak bahitzeko egindako saiakerek.

3.2. Aipatu espedienteen zorraren zenbatekoa 92 eta 300 euro artekoa da: ez dute emaitzarik izan zenbait banku-erakundetan funtsak eta soldatak, lansariak edo pentsioak bahitzeko egindako saiakerek.

3.3. Espediente horien zorraren zenbatekoa 300 eurotik gorakoa da: ez dute emaitza onik izan zenbait banku-erakundetan funtsak eta soldatak, lansariak edo pentsioak, ibilgailuak edo ondasun higiezinak bahitzeko egindako saiakerek.

4. Artikulu honetan zehazturiko zenbatekoa zehazte aldera, zergadun batek ordaintzeke dituen zor guztiak zenbatuko dira, baita epealdi exekutiboan ordainketa epea amaituta daudenak ere eta, beraz, bahitu daitezkeenak; kontuan hartuko dira horien zenbateko nagusiak.

Artikulu honetako 2. atalean zehazturiko zenbatekoa zehazte aldera, ordaintzera behartuta dagoen batek ordaintzeko dituen, zirkulazio-isunekiko kontzeptu desberdinak dituzten eta bahitu ahal diren zerga guztiak.

46. artikulua. Baja-espediente sinplifikatuak.

Alkatetzak baja-espediente sinplifikatuak onartu ahal izango ditu hurrengo kasu hauetan, bakoitzerako zehazturiko prozeduraren arabera:

- a) Zordunak kokatzeko, zehazteko eta identifikatzeko oinarritzko datuak (abizenak eta izena, NAN/IFK edo helbidea) falta dituzten zorrak.
- b) Ofizioz baliogabetu eta bajan eman ahal izango dira 6,01 euroak gainditzen ez duen zenbatekoko epealdi exekutiboko zorrak, harik eta ordaintzera behartuta dagoenak epealdi exekutiboan beste zorrik ez badu.
- c) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ordainagiriei, 10 urte baino gehiagoko ibilgailuei dagozkienei eta haien matrikulazioan Diru-bilketa Exekutiboaren kobrantza-kudeaketaren xede izan direnei, helbidea ez ezagutzeagatik emaitzarik izan ez dutenei, baja emango zaie tituluei dagozkien eta Diru-bilketaren eta Erroldaren edo kobrantza-zerrendaren xede izango da; gainera, Ekonomia eta Ogasun Zerbitzuek eta Udal Diru-bilketak ere kontuan hartu ahal izango ditu preskribatu gabeko azken lau urteak eskatzeko Trafiko Buruzagitzaren aurrean transferentziak edo bajak gauzatzeko egiaztagiria eskatzen duten zergadunei.

IV. KAPITULUA. PREMIAMENDU-PROZEDURA.

47. artikulua. Erregimena.

Premiamendu-prozedura eta bahikuntza-jarduera Zergei buruzko Foru Arau Nagusiak eta Bizkaiko Lurralde Historikorako Diru-bilketa Araudiaren arabera gauzatuko da.

48. artikulua. Premiamendu-prozedura.

1. Premiamendu-prozedura zergadunari premiamendu-probidentziaren berri emanda abiatuko da eta bertan ordaintzeko dagoen zerga identifikatuko da, kasu bakoitzean sortzen diren gainordainak eta interesak barneratuta, eta ordainketa gauzatzeko eskatuko zaio.

2. Udal diruzainak egindako premiamendu-probidentzia titulu nahikoa izango da premiamendu-prozedura abiatzeko eta zergadunen ondasunen eta eskubideen kontra abiatzeko ebazpen judizialaren pareko indar exekutiboa izango du.

3. Premiamendu-probidentziaren kontra ondorengo aurkaritza-arrazoiak direla medio soilik onartuko dira:

- a) Zorraren iraungipen osoa edo Zerga-administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahalmenaren egikaritzaren preskribapena.
- b) Geroratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskaera borondatezko epean eta diru-bilketako prozedura bertan behera uzteko beste arrazoi batzuk.
- c) Likidazioaren gaineko jakinarazpen falta.
- d) Likidazioaren baliogabetzea.
- e) Zorduna edo premiatutako zorra identifikatzea eragozten duen premiamendu-probidentziaren edukian akatsen bat edo hutsen bat izatea.

4. Zergadunak ordainketa ez badu premiamendu-probidentziaren jakinarazpenetik hilabeteko epean egiten, haren ondareak bahituko dira eta hori ohartaraziko zaio probidentzia horretan.

5. Prozedura bakar bat jarraitze aldera, premiamendu-prozeduran dauden zor guztiak prozedura bakar batean pilatuko dira. Alabaina, prozeduren beharrek hala eskatzen dutenean, pilatutako zorrak bereizi ahal izango dira.

49. artikulua. Bahikuntza-ekintza.

1. Bahikuntza-ekintza guztia dokumentatuta egongo da Udal diruzainak Diru-bilketa Sekzioaren buruaren proposamenez aurkeztutako eginbide bidez eta ekintza horren helburu den pertsonari jakinaraziko zaio.

Bahikuntza egin ondoren, zordunari horren berri emango zaio eta, kasuan-kasuan, ondasunen hirugarren titularrari, edukitzaileari edo gordailuzainari horiekin ekintzak gauzatu ez badira, baita zordunaren ezkontideari ere bahitutako ondasunak irabazizkoak direnean, eta zordunarekin batera ondasun horien jabeak edo titularrak direnei ere.

2. Bahitutako ondasunak Erregistro Publiko batean inskriba badaitezke, Administrazioak eskubidea izango du dagokion Erregistroan bahikuntzaren prebentziozko oharra jartzeko, Udal diruzainak emandako aginduaren arabera.

3. Bahitutako ondasunen inorentzea enkante, lehiaketa edo esleipen zuzen bidez egingo da.

4. Ondasunen esleipenaren aurreko edozein unetan bahitutako ondasunak itzul daitezke zerga-zorra eta prozeduran zehar sortutako gerorako gainordaina, kostuak eta interesak ordainduta ere.

V. KAPITULUA. ETENDURA ERREKURTSOA JARRITAKO EGINTZAREN EGIKARITZAN.

50. artikulua. Etendura.

1. Ordaintzera behartuta dagoenak eskubidea du, dagokion errekurtsua edo erreklamazioa egiteko aukerarekin, aurka egindako egintzaren egikaritza eteteko, harik eta indarrean den legediak eskatzen dituen bermeak aurkezten baldin baditu.

Bermeak errekurtsuaren xedea den zorraren zenbatekoa berdinduko du eta errekurtsu-egilea kopuruaren gainerako zatia ordaintzera behartuta geldituko da. Zorra premiamendu-prozeduran baldin badago, bermeak, zorraz gain, haren %25 ere hartuko du barnean sor daitezkeen premiamendu-gainordainagatik, interesengatik eta kostuengatik.

Aurreko paragrafoan aipatu bermea denbora mugagabez aurkeztuko da.

Etendura edozein unetan eska daiteke errekurtsua edo erreklamazioa bideratzen ari den bitartean, baina errekurtsua jartzerako unean eskatzen ez bada, gerora sor daitezkeen prozedura-ekintzetan soilik izango du eragina.

Aurka-egiteak zerga-isun batean eragina izango balu, horren egikaritza automatikoki etengo litzateke bermerik aurkezteko beharrik gabe isuna bide administratiboan irmo izatera iristen den arte.

2. Aurreko puntuan aipatu etendura automatikoa lortzeko berme nahikoak Udal Diruzaintzan gordailatuko dira eta hurrengo motatakoak izango dira soilik:

- a) Diru-gordailua edo titulu publikoak.
- b) Kreditu erakunde baten izaera solidariokoa bala edo fidantza.

3. Interesdunak ezin baditu etendura lortzeko berme nahikoak aurkeztu, etendura hitzartu ahal zango da organo eskudunak nahikotzat jotako beste berme batzuk aurkeztuz gero; organo eskudunak etenduraren gaineko ebazpena aldatu ahal zango du etendura gauzatzea eragin zuten baldintzak mantentzen ez badira, aurkeztutako bermeek balioa edo eragingarritasuna galdu badute edo etenduraren gaineko ebazpena ematerako unean ezagutzen ez ziren beste ondasun edo eskubide batzuk daudela jakiten bada eta horiek berme gisa aurkez badaitezke.

4. Aurreko puntuei kalterik egin gabe, prozedura bermerik aurkeztu gabe etetea adostu ahal izango da ondorengo kasuetan:

- a) Akats aritmetiko, material edo egintzazko batean erori ahal izan dela ikusten denean.
- b) Errekurtsua aurkeztu duenak argudiatzen eta justifikatzen duenean, erabakitze organo eskudunaren irizpidearen arabera, bermerik ematerik ez dagoela edo prozeduraren egikaritzak konpontzeko zailak edo ezinekoak diren kalteak sor daitezkeela.

5. Bide administratiboan sorturiko etendura mantendu egingo da interesdunak Administrazioari administrazioarekiko auzietako errekurtsua aurkezteko epean errekurtsu hori bultzatu duela eta bertan etendura eskatu duela. Etendura horrek aurrera jarraituko du bide administratiboan aurkeztutako bermea indarrean badago eta eragingarria bada, organo judizialak eskatutako etendurari dagokionez egokia den erabakia hartzen duen artean.

Zigorren kasuan, etendura mantendu egingo da aurreko paragrafoan zehazturiko baldintzen arabera eta bermea aurkezteko beharrik gabe, epaileak erabakia hartzen duen arte.

6. Erreklamazioaren edo errekursoaren ebazpenaren eraginez aurka egindako egintzatik eratorritakoz enbatekoa erabat edo modu partzialean sartu behar denean, berandutze-interesak likidatuko dira 26. artikuluari jarriki, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 3. atalaren 219. artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

7. Administrazioak, zenbatekoa egiaztatu ostean, zor baten egikaritza eteteko Administrazioaren ardurapean emandako bermeen kostuaren dirua itzuliko du, ebazpen edo erabaki administratibo batek bidegabekotzat jo eta erabaki hori irmo izan bezain pronto.

Zorra modu partzialean bidegabekotzat jotzen bada, aipatu bermeen kostuari dagokion zatia itzuliko da.

51. artikulua. Bermeen kostuen diru-itzultzea.

1. Ekintza bat eteteko emandako bermeen kostuen itzulketak bermea itzultzen den egunera arte etendura formalizatzeko, mantentzeko eta baliogabetzeko beharrezkoak diren gastuak barneratuko ditu.

2. Bermeen kostuen itzulketarekin, Zerga-administrazioak denbora-tarte osoan indarrean den berandutze-interesa ordainduko du; berandutze-interesa kostu horiek sortu direnoko data egiaztatutik diru-itzulketa jasotzeko eskubidea aitortuko duen hitzarmena sortzen den arte sortuko da.

52. artikulua. Bermeen kostuaren diru-itzultzerako prozedura.

1. Bermeen kostua itzultzea bideratzeko eta adosteko organo eskuduna alkatea izango da, Udal diruzainaren proposamenez.

2. Prozedura interesdunaren eskariz hasiko da. Ondorengo agiriak atxiki beharko dizkio eskari horri:

- a) Etendako administrazio-ekintza edo zorra erabat edo modu partzialean bidegabekotzat jotzeko ebazpen administratiboaren edo epaiaren kopia.
- b) Bermeen kostuaren kopurua zenbatekoa den egiaztatzen duen agiria, ordainketaren data eragingarria zehaztuta.
- c) Diru-itzulketa egiteko hautatutako bidearen adierazpen espresua; banku-transferentzia bidez egin ahal izango da zordunaren titulartasun peko kontu zenbaki bat zehaztuta, baita konpentsazio bidez ere.

3. Zerga-administrazioak eskatutako diru-itzulketaren jatorria egiaztatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatuko ditu eta, horiek amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, interesdunari entzunaldi baterako deituko zaio. Izapide hori ez da bete beharko interesdunak aurkeztutako egintzak eta alegazioak prozeduran agertzen ez direnean eta horiek baino hartzen ez direnean kontuan.

4. Organo eskudunak ebazpena emango du eta horren berri eman beharko da gehienez sei hilabeteko epean, Erregistro Orokorrean eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita.

5. Jakinarazpena egiteko epea igaro eta jakinarazpen hori ez bada egin, interesdunak bere eskaera ez dela onartu ulertu ahal izango du aipatu ebazpenaren kontrako errekurtoa jartze aldera.

6. Bermeen kostuaren diru-itzulketa onartuko duen ebazpena egin ostean, dagokion ordainketa-agindua emango da pertsona edo erakunde hartzekodunaren alde.

IV. IKUSKARITZA

53. artikulua- Zerga-ikuskaritza gauzatuko da 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005 FORU ARAUAN eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskaritzaren araudia onartu zuen 2005. urteko ekainaren 21ko 99/2005 Foru Dekretuan zehazturikoaren arabera gauzatuko da. Alkatea izango da jarduera horietatik erator daitezkeen ekintzak emateko eskumena izango duena”.

V.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

54. artikulua- Zerga arloko arau-hausteak 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005 FORU ARAUAN zehaztutakoaren arabera kalifikatu eta arautuko dira.

Zerga arloko arau-hausteei aplikatu beharreko zigorrak 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005 FORU ARAUAN eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko Zigor-araudia onartu zuen 2005. urteko ekainaren 21ko 100/2005 Foru Dekretuan zehaztutakoaren arabera arautuko dira. Alkatea izango da jarduera horietatik erator daitezkeen ekintzak emateko eskumena izango duena.

VI. EGINTZAK ADMINISTRAZIO-BIDEAN BERRIKUSTEA

55. artikulua- Zerga arloan bide administratiboan emandako egintzen berrikuspena 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005 FORU ARAUAN eta 2005. urteko abenduaren 16ko Tokiko Ogasunen gaineko 9/2005 Foru Arauan zehazturikoaren arabera gauzatuko da”:

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hori behin-betiko onespena eman zitzaion, eta indarrean sartuko da 2007ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.”